




LAGUN GAUA



ZER DA HAU GUZTIA?

Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atalekook Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera egin dugun proposamen bat da. Prozesu bat jarri dugu martxan, herritarren partaidetzari buruzko antzezlan baten gidioa egiteko eta lana bera egokitzeke eta antzezteko, gazteek zuzenduko dutena eta gazteak protagonista izanen dituen. Hain zuzen, joan den ekainaren 22an Printzearen Gotorlekua egoitzan estreinatu genuen obra, Iruñean, eta orain asmoa dugu Nafarroa osoan zabaltzeko.

Obraren gidioa Luis Tarrafetak idatzi du, eta 2006tik NUPeko antzerki taldeko zuzendaria den Oscar Orzaiz arduratu da muntatzeaz eta zuzentzeaz. Talde berarekin muntatu genuen Cuatro sillars para tres lana ere, zeina agian ikusi baituzue. Obra horri buruz gehiago jakiteko, sakatu [esteka](#) honetan.

Aurreko esperientzia erabat arrakastatsua izan zen, eta, horrenbestez, berriro saiatzea erabaki dugu, oraingoan gazteei zuzenduta, haien hutsunea sumatu baitugu parte hartzeko prozesuetan eta, sarritan, zailtasunak sentitzen baititugu haiekin komunikazio emankor bat ezartzeko. 16 eta 26 urte bitarteko gazteek ari gara, baina jakin badakigu adin atalase horiek nahiko erlatiboak direla, egoera ezberdina baita pertsonen, testuinguruen eta beren kolektibo eta taldeen arabera.

Lanaren gidoirako aurretiazko ideiak garatzeko orduan, gune eta testuinguru askotako pertsonen laguntza ere izan dugu. Hori dela eta, uste dugu gidioiak eta lanak oso emaitza ona izan dezaketela.

Labur esanda eta zuei amaiera hondatu gabe, obraren muina gazteen talde bat da, zeinak gau batean udalak proposatutako eskaintza bati erantzun behar baitio: taldean definitzea nola izan beharko lirakekeen aisialdiko erabilera anitzeko espazio baten instalazioak eta programa. Baina ados jarri behar dute nahi dutenaren inguruan eta jarrera bateratu bat lortu behar dute.

Eta, jakina, hor sortzen dira era guztietako zalantzak eta kontrako jarrerak...

Gure ustez, amaiera behar bezain irekia da ikusle guztientzat interesgarria izan daitekeen hausnarketa eta eztabaida sortzeko.

Baita deialdia egiten duen erakundearentzat ere, noski!



ZER PROPOSATZEN DIZUEGU?

Estreinaldiaren ondoren, asmoa da lana lurralde osoan zehar zabaltzea. Obra leku zehatz batzuetara eramanen da, zuen ustez interesgarriak diren lekuetara, hain zuzen, horietan baliagarria izan daitekeelako gazteen artean eztabaida edo hausnarketa sortzeko gai publikoetan duten parte-hartzeari buruz eta eragiten dizkieten gaien arloan erabakiak hartzeari buruz.




Uste dugu eskaintza erakargarria izan daitekeela gaztelekuetan eta kultur etxeetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketa eta Baxilergoko zentroetan, unibertsitateetan, gazteen elkarteetan eta gazteak biltzen dituen beste edozein lekutan antzezteko, haientzako obra baita. Prozesu interesgarriak zabaltzeko abiapuntua izan daiteke.

ZER BALDINTZA DAGO?

Antzeppen bakoitzaren kostua 800 € da, eta Nafarroako Gobernuak % 50 ordainduko du. Gainerakoa obra hartzen duen erakundeak ordaindu behar du. Horrez gainera, kartela emanen dizuegu zenbait formatutan, sareetan zabaltzeko edo inprimatzeko, hala nahi baduzue.

Antzezlan gaztelaniaz zein euskaraz egiteko aukera dago. 30 minutu inguruko iraupena du, eta asmoa da, antzeppenaren ondoren, elkarrizketarako eta eztabaidarako tarte bat eskaintzea bertaratutakoei.



Obra hartzen duten erakunde edo kolektiboek eskatzen diegu antzeppenerako leku egoki bat izateko eta zabalkundeaz arduratzeko, ikusleak aretora joan daitezen. Gainera, antzezzanarekin lotura duen eta etorkizunari begira zentzu handiagoa ematen dion ideia edo proiekturen bat baduzue martxan, hainbat hobe.

ZER EGIN BEHAR DA LANA HARTZEKO?

Mezu bat idatzi behar diguzue participacionciudadana@navarra.es helbidera, eta azaldu behar diguzue nor zareten, zergatik eraman nahi duzuen antzezlan zuen herri edo auzora eta antzeppenerako lekuri duzuen. Halaber, esan gutxi gorabehera zer egun eta ordutan egin nahi duzuen antzeppena. Ondoren, harremanetan jarriko gara zuen eskaerari erantzuteko, alderdi teknikoak aztertzeko, zenbait xehetasun aurreratzeko, eta abar.

GAU ARRAROA DA. BESTEAK EZ BEZALAKOA. APUR BAT AZTORATU GAITUEN PROPOSAMEN BAT IRITSI BAITA.

JENDE GEHIENA ARTEGA DAGO, ZALANTZATI, HEMENDIK HARA MUGITZEN, GUZTIZ ZENTRATU GABE.

BATZUK ERABAT PREST DAUDE, BAINA BESTE BATZUEK EZ DUTE ARGI IKUSTEN.

EDO EZ DAUKATE GOGORIK NAHAS-MAHAS HORRETAN SARTZEKO. EDO EZ DIRA FIDATZEN... HALA ERE, ERABAKIA HARTU BEHAR DA.

...

AHALEGINA EGINEN DUGU ALA HOBE DA PASO EGITEA? ZERBAITETARAKO BALIOKO DU AHALEGINAK? ADARRA JOTZEN ARIKO ZAIZKIGU?

GAINERA... GAI IZANEN GARA ADOS JARTZEKO? HAINBESTE PERTSONA EZBERDIN, ETA NORBERA BERE KONTUEKIN.

EZINEZKOA DIRUDI, EGIA ESAN. EDO ZAILA, BEHINTZAT.

BAINA, AIZU, BATEK DAKI...

